

## **FUNTSEZKO BALIABIDEAK**

Gure proiektua funtzionatzeko, funtsezko elementuak izan behar ditugu enpresari ahalbidetzen diotenak gure balio-proposameneko eskaintza garatzea, bezeroengan iristea, haiekin harremanak izatea eta diru-sarrerak sortzea.

Hainbat baliabide fisiko eduki beharko ditugu. Adibidez, langileak, lan egiteko garajea, ordenagailuak, mugikorrak...etab. Gainera, baliabide intelektualak oso garrantzitsuak izango dira aplikazioa egiterako orduan, sormena bezala. Sormen eta imaginazio asko beharko dugu aplikazioa egiteko eta haren diseinua egiteko ere. Horretarako, gure baliabideak erabiliko ditugu. Gailu elektronikoa ondo eramaten ditugunez, abilezi handia izango dugu aplikazioa egiteko orduan, eta errazago edukiko dugu gure aplikazioa maneiatzeko. Eta azkenik, finantza baliabideak kontabilitatean aditu den pertsona batek edo gehiagok eramango dituzte, guk kontratatuak.

Lehenik eta behin, noski, baliabide finantzieroa beharko ditugu, kapital sozial kopuru bat beharko dugu aplikazioa aurrera eramateko eta bere funtzio guztiak bete ahal izateko, horretarako bazkideen akzio eta ekarpenak beharko ditugu, gure aurrezkiekin batera.

Aplikazioaren atal guztiak ondo funtziona dezaten garrantzitsuena maila aipatzeko teknologia izatea da, aplikazioa berrituta eta funtzional mantentzeko, egoera on batean dagoen ordenagailu bat. Aplikazioa atzeratuta geratzen bada gure aplikazioari buruzko iritzia okerrera joango da eta bezeroak galduko ditugu. Horretarako gainera, baliabide intelektualak beharko ditugu, eta teknologiarri buruzko formazioa jaso beharko dugu.

Horrez gain, gure aplikazioa lanpostu desberdinekin hornituta egoteko, funtsezko ezaugarri bat enpresekin kontaktuan egotea da, eta hutsik dauden lanpostuei buruzko informazio nahikoa izatea. Ezaugarri hau gabe, gure aplikazioaren funtzio nagusia (lana aurkitzen laguntzea), eskaintzen dugun zerbitzua dena, ez legoke egongo. Beraz, kontaktu zerrenda bat beharko dugu. Horrez gain, telefono bat eta telefono zenbaki bat baita beharko ditugu, enpresekin kontaktuan egoteko.

Bezeroak erakartzeari dagokionez garrantzitsuena diseinua da, aplikazioak deskargatzeko orduan ikusten dugun lehenengo gauza delako, eta ez badigu erakartzen, ez dugu deskargatuko. Aplikazioaren gainerako funtzionalitate guztietan du eragina. Adibidez, botoiak txikiak badira, zaila izango zaigu maneiatzea eta lortu nahi duguna da aplikazioa erraza izatea erabiltzeko.

Diseinu atsegin batekin, erabiltzailea gustura sentitzen da aplikazioarekin, berriro erabiliko du eta gomendatuko dute.

Aplikazioaren diseinuan hartu behar ditugun gauzak kontuan: Gure aplikazioa besteengandik bereiztea. Behar diren funtzioak jartzea, ez gehiago, ez gutxiago, jendeari erraza egiteko aplikazioaren erabilera. Beraz, diseinuari buruzko formazioa jasoko dugu. Irudi hau da gure aplikazioaren diseinuaren ideia.



Beraz, beharko ditugu bai baliabide fisikoak (lokala, ordenagailua, telefonoa) bai baliabide intelektualak (formazio teknologikoa, enprekin kontaktuak, aplikazioen disenuaren formazioa) bai finantza-baliabideak (aipatutako guztia ordaintzeko) gure negozioa aurrera eramateko.